

# gaurkoan

José Manuel Etxebarria (\*)

# zelatan

## Erregerik gabeko Euskal Herri askatuan, Iñaki askatu!

Bi urte dira Pronxio gureak Joan Carlos, joan fueraaa!!! izenburua zuen artikulua EGIN-en argitaratu zuenetik (1988-II-10), eta datorren astean, Otsailaren Sean hain zuzen, «Audencia Nacional» deritzen eta Madrilen dagoen Espainiako entzutegi berezian (euskaldunonizako bereziki jarritako horretan), zazpi urtetako gartzela zigorra eskatuz, Iñaki Antigüedad irakaslea eta euskal idazlea juzkatuko dute. Epaiketa honek iruzkinik eta kritika erezi duela ikaragarria da eta hortara noa.

Ez naiz legegizona eta are gutxiago Espainiako legeen zale eta defendatzailea, geure buruaren gainean ditugun eta, euskal nazionalismoaren alde, gu zabalteko jarritako legeak direla uste bait dut. Baina bata bestea kentzen ez duenez, Espainiako lege horiek erabiliko ditut abiapuntu modura, beraietan esaten dena nola Espainiako arduradunek errespetatzen ez duten agertzeko, eta nola oraingo juzzioarekin kontraesan dauden. Azalpena ez da legegizonen bati dagokiona (agian hobeto), maite ez duen estatu bateko hiritar bati dagokiona baizik. Uste dut, ordea, eritzi-askatasunik balez (dudatan bait dut dagoenik), daukadan eritzia agertzeko modukoa dela. Eta hainbeste propagandaz aipatzen den askatasun demokratiko hori ez badago, are gehiago.

Kontua da, Espainiako Konstituzioak (1978) ean euskaldunoi gainjarri zigutena, alegia, bere 48.1. artikuluan dioenaren arauerak, erregeak «tutela los derechos y libertades reconocidos por la Constitución» (itzultzen dakidan arren, ez dut itzuli nahi, Iñaki-ekin bere lepo gaineko oker berbera ez gabeko). Zer esanik ez, errege horrekin ados ez banago ere (ez nago, noski) eta beraren autoritaterik onartzen ez badut ere (eta ez dut onartzen, noski), ondo dakusat, berak betebehara hori bere lepo gaineko hartzea. Ez dut hain garbi, monarkiar buruzko gaietan betebehara hori betetzen duenentz, zeren, adibidez, aste honetan bertan, Konstituzioaren 18.2. artikuluan «el domicilio es inviolable» esan arren, Iruñean, beraren emaztearen bisita medio, polizia omen diren batzuk HBren egoitzako atea aizkoraz txikitu eta behera bota dutelarik, eta ondoren baimenik gabe barrura sartu direlarik, errege horrek ez bait du ezertxo egin,

eskubide hori babesteko. Nik dakidala bederen.

Konstituzioarekin segituz, 20.1. artikulua dioenez, «se reconoce el derecho a expresar y defender ideas, usando libremente la palabra, el escrito y la imagen, sin censura previa». Iñaki-ren kasu honetan, argi dago, kontraesan izugarrian dagoela juzzioa bera, zeren erregea babestu behar duen eskubide bat erabiltzeagatik juzkatzen bait da. Hala, juez eta parte batera izatea onartzen al da, komeni denean? Zer uste du espainolek erregeak horretaz? Ez al da hori iruzur-mota bat? Ala geure burua espainolizat ez daukagunontzat eskubide horrek ez al du balio? Eta, badaezpada, argi gera dadila, arazoa galdera modura planteatzen dudala, ez bait dut alferreko epaiketarik pairatu nahi.

Zuzenbidea nola berea ematea baldin bada, eta zuzenbiderik dagoela sinestera nahi badigute, zuzendu beharreko puntuak lirateke horiek, noski, eta erregeak berak ere jokoaeren parte izan beharko luke, monarkia kritika-eko eskubidea onartuz. Bestela, ene eritziaren, erakunde monarkikoaren jokabide hori markaturiko kartekin jokatzeko bezalako litzateke, eta gure artean, euskaraz bederen, karta markatuekin jokatzeari, tranpak egitea deritzogu.

Hala ere, arazoaren irtenbidea, 48.3. artikuluan zati bat literalki irakurtzetik etor daiteke, Iñaki-ri juzzioaren oinarrian egiten den bezala. Zeren eta, aurrera baino lehen gauzak argitzeko. Iñaki-ri aurkako juzzioa, nire adiskide honek euskaraz idatzitako artikuluan erdal itzulpen batetan finkaturiko akuzazioa besterik ez bait da, bidenabar esanda, testu literario baten itzulpen literal-partzialean, ene ustez. Ondorioz, bide horretatik, literaltasunaren arauerak honelaxe irakurri beharko nuke (egoki ikuste ez dudana, zeren esanik ez) neure bihotzekoa ez den gartzelanian, delako 48.3. artikulua horretan: «la persona del Rey es inviolable y no está sujeta a responsabilidad». Ni benetan kezkatu egiten nau bigarren atal honek. Zer esan nahi du, erregea erresponsablea ez dela? Horrek ez dirudi, irresponsablea denik esan nahi denunik, noski, gogorra bait litzateke benetan egia izatekotan. Egia esan, ez nuke hori pensatu nahi; eta ez dut horrela uste.

Unibertsitariok argi eta garbi ikusi dugu, juzzio hau eritzi-eta adierazpen-askatasunaren aurkako eraso dela, eta horren adibide modura, bertako irakasle onordekari den Irakaslegoaren Batzordearen erabakia dago (ahobatez harturikoa bestalde), zeinen juzzio honen salaketa egin den, oinarriko eskubide demokratiko baten aurkakotzat harturik, ez bururik ez buztanik ez duen juzzio bat dela uste bait dugu unibertsitariok. Eta horretatik, publikoki adierazi nahi dugu Iñaki-rikiko elkartasuna.

Eritzi- eta adierazpen-askatasunaren izenean, inori irainik egin gabe noski (ez eta Espainiako erregeari ere) baina eritzi politiko-ideologikoa adieraziz, nik neuk ere Monarkia kanpora! aldarrikatu nahi dut, eta argi eta garbi esan nahi dut, euskalduna naizen aldetik ez dudala inolako erregerik onartzen, eta espainolek erregerik onartzen badute, beren kontua dela (berentzako txarrago!, pentsatuiko nuke, baina tira!), eta bestelako nazioetako arazoetan ez naizela sartzen, eta espainolek bazekiten utz gaitzela beren inposizioekin. Al! Eta gu erdaraz juzkatzen ez daitezela etor, beren autoritaterik onartzen ez dugulako! Eta gertakaria izanik aski dudala gure herri horren errausketarekin eta inoiz, inola ez ezer-gatik ere ez dudala onartuko, euskaldunon ar-bola sailduaren inguruaren errausketa agindu zuenaren oinordekorik, eta Espainian errege modura onartzen omen duten hori Franco-k jarri zuela, eta abar eta abar.

Dena dela, ez nuke artikulua hau amaitu nahi, galdera moduko eritzi bat agertu gabe. Posible al da erregearen irudia eta erregea bera Espainian ere soberan dagoela pentsatzea, alegia erregea eta erregetza inuitak direla pentsatzea? Eta hori idatziz esatea?

Galdera horien erantzunak ezetzkoak direla uste dudanez, eta dauden indar faktiko aipaezinezko horiek, Espainiako Konstituzioa eta sistema espainiarra mantentzeko, ezekotasunari eusteko edozer egiteko prest daudela uste dudanez, horregegatik diot, erregerik gabeko Euskal Herria askatua nahi dudala. Eta juziorik badute, juzzioa bertan behera utz dezatela: Iñaki askatu! alegia.

Eta hau egia bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Madrileko plazan.

(\*) UPV/EHUko irakaslea

## Démocratie française

Berrehun urte...  
Ipartar anai-arrebak frantses demokraziak horniturik bizi direnez geroztik, egun hauetantxe bete dira bi mendeak.

1790ko urtarrilaren 15an, hain zuzen, Frantzia berrian Ipar-euskaldunen eta biarnesen «etorkizun batua» eztabaidatzeko tenorea iritsi zen.

Baxenabartar ordezkariak, Nafarroa eta Frantzia bi erresuma desberdin zirela bide, bileran parte ez hartzea erabaki zuten. Lapurtar bi ordezkariak, beriz, Garat «zaharrak» eta Garat «gazteak», Biarnoko eta Euskal Herriko hizkuntzen diferentzia azpimarratuz, eta departamendu berrian ipar-euskaldunak gutxiengo izango zirela-koan, protesta egin zuten «beren probintziaren izenean».

Kasorik ez, ordea; eta «Basses Pyrénées» departamendu bikuna sortu zen.

Paue urrutiegi gertatuko zitzaizela-ta, departamendu berriko hiru-burua bertago kokatzen saiatu ziren Ipar-euskaldunak. Nabarrenko proposatu zuten (fr. Navarrenx), Zuberoako mugan bertan (nahiz Biarno aldean), Ospitale-pitik kilometro gutxitara. Eta lehenengo departamendu biltzar nagusia hara biltzea lortu zuten. Baina Parisen «niet» esan zuten, eta... Pauera!

Urteak joan, urteak jin, abertzale-tasunaren sorreratik beretik, «Euskal Departamendua» eskatu da behin eta beriz...

Hots, Pierre Joxe ministroak lehenengo astean (1790ko gertaerak errepikatzen zituela jakin gabe, segurki), ia-ia egun berean, hauxe bota du ozenki: «Un Département Basque? Pas question!».

Horra hor hetero-determinazioa zer den: Parisen esaten digu zer den zilegi eta zer debekua.

Berrehun urte demokratiko, omen.  
TXILLARDEGI

# hemeroteka

## Pro-mala Vida

(Almudena Grandes, «El Mundo»)

(...)Mientras en Pamplona se gasta el dinero público en un proceso donde el propio fiscal, que si no me equivoco representa al conjunto de la sociedad, pide la absolución de los acusados, en el Gregorio Marañón de Madrid se mueren dos enfermos por una causa tan inconcebible como la falta de personal para atenderlos. Y en este flagrante delito contra el derecho a la vida... ¿dónde están los Provida? ¿Dónde estaban cuando se aplicaron penas vergonzosas a los traficantes de aceite de colza? ¿Dónde estaban cuando se aclararon las circunstancias de la muerte de Santiago Corella? ¿Dónde estaban el otro día cuando otros policías nacionales de paisano tiroearon a tres individuos desarmados que charlaban tranquilamente en un bar de Miranda? Ausentes en las tragedias que han

costado la vida buena a gente plenamente capaz de vivirla, solamente ahora salen de su madriguera. Y no tiene sentido entrar a discutir la ley, pero, por lo menos, alguien debería obligarles a usar otro nombre: Pro-mala Vida.

## Valencia

(Josep Vicent-Marqués, «El País»)

Hoy (viernes) llega a Valencia un portaaviones nuclear francés con otros buques de guerra que hay que suponer amigos por aquello de que vienen juntos. La noticia es en sí desagradable, pero se convierte en preocupante si se considera que hace sólo unos días visitaba el mismo puerto un portaaviones norteamericano... Se que el presidente Lerma es hombre moderado, y no llamaría a las fuerzas de la OTAN para resolver un problema interno. Tan moderado que ni siquiera ha hablado de autodetermi-

nación, aunque la autodeterminación quizá sirva para evitar cosas como ésta, que te llenen el puerto de monstruos marinos que nunca debieron surcar el Mediterráneo. Viene un portaaviones nuclear francés y, según leo, la Armada es-

pañola no enviará técnicos para medir la radiactividad. Al parecer, sólo lo hacen cuando el buque es de propulsión nuclear, no cuando simplemente lleva armas nucleares. Oficialmente se ignora que las lleven porque estamos en la OTAN,

pero oficialmente mantenemos la virginidad nuclear.

Hoy todo el mundo hablará de la familia Guerra. Y esto es lo odioso de este tipo de affaires: te obligan a ignorar cosas más graves que suceden (...).

## PANAMÁ QUIERE SUPRIMIR EL EJERCITO (COMO YA HIZO COSTA RICA)

NOS INVADEN IGUAL...  
¡Y AL MENOS SUPRIMAMOS  
GASTOS Y PELIGROS  
DE GOLPE DE ESTADO!

el PERICU



OTR press